



LESAKAKO UDALA

Plaza Zaharra, 1
31770 LESAKA (Nafarroa)
CIF P3115200B
Tel. 948 63 70 05
udala@lesaka.eus
www.lesaka.eus

LESAKA

Energia elektrikoa, gasbideak eta beste hidrokarburo batzuk garraiatu eta banatzeko instalazioen bidez tokiko jabari publikoa modu pribatiboan erabiltzeagatik edo bereziki aprobetxatzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza fiskala behin betiko onartzea.

Lesakako Udalaren Osoko Bilkurak, 2022ko abuztuaren 4an egindako bilkuran, hasiera batean onetsi zuen tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik tasa arautzen duen ordenantza fiskala, energia elektrikoa, gasbideak eta beste hidrokarburo batzuk garraiatu eta banatzeko instalazioen bidez. Iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 167. zenbakian, 2022ko abuztuaren 23an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatuak, 325.1 artikuluan xedaturikoaren arabera, eta jendaurrean jartzeko epea iragan eta alegaziorik aurkeztu ez denez, ordenantza hori behin betiko onartzen da, eta haren testu osoa argitaratzen da, dagozkion ondorioetarako.

Lesakan, 2022ko urriaren 17an.

Alkatea,



Ladis Satrústegui Alzugaray